



## *Traduction du Droit et Droit de la Traduction*

Cornu, M. et Moreau, M. (dir.)

Dalloz

Paris.

2011

ISBN 978-2-247-10527-4

333 or.

ANDRES URRUTIA BADIOLA

Notarioa. Euskaltzainburua

Deustuko Unibertsiateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea

Bi gai nagusi bildu dira liburu honetara, besteak beste, zuzenbidea itzultzea eta itzultze juridikoari buruzko zuzenbidea, bi-biak, hurbil egon arren, desberdinak baitira hainbat arlotan.

Izatez, lehenak du gure artean, euskararen esparruan, oraindik ere, garatze teoriko mugatua, eguneroko jardueran, batez ere, aldizkari ofizialetan, erruz erabilia izan arren. Bigarrenak, aldiz, askoz esparru murriztagoa dauka euskararen lurraldeetan, inor gutxi kezkatu baita honetan.

Badira, alabaina, batean zein bestean, zantzu berriak, euskararen eremura kanpoko eskarmentua ekartzea aholkatzen dutenak. Aipagarri, zinez, berrikitan gertatu diren zinpeko itzultzaile eta interpreteak izendatzeko deialdiak eta horien fruituak. Gogoangarri, bestalde, gero eta nabarmenago datorren kezka, beste hizkuntzetatik euskarara datozen testu juridikoak kalitate handikoak izan daitezen eta zer esanik ez, euskararen erregistro juridiko beregain baten sorkuntza bidean laguntzaile eta erakusle.

Hainbatez, liburu honetara bildu dira 2009. urtean Poitier hirian eginiko jardunaldiak, bertako CECOJI eta Juriscope erakundeen artean bultzatuak.

Hasierako proposamena aditzera ematen du Xabier North jaunak, Frantziako gobernuaren barnean frantsesa eta Frantziako hizkuntzen ordezkartzaren bozeramaileak:

*Rapprocher le droit et la traduction ne va pas tout à fait de soi, ce que explique peut-être que les problèmes de tous ordres posés par le passage de termes ou de systèmes juridiques d'une langue à l'autre n'occupent que rarement le devant de la scène (je devrais dire: du prétoire), alors que c'est là, aujourd'hui, l'un des enjeux cruciaux de la mondialisation des économies, des cultures et des sociétés (2. or.).*

*Pour pouvoir continuer à répondre à cette attente, il importe de conserver vivante et productive notre réflexion dans le domaine du droit, et donc de veiller aux modalités de traduction en différentes langues: qu'il s'agisse de méthodologie, de déontologie, de terminologie, de droit comparé, etc. Toutes problématiques dont je vois, à la lecture de votre programme, qu'elles seront abordées et examinées durant le colloque (4. or.).*

Jarraian artikulua eta egileen zerrenda luzea dator, hiru zatitan banatua, zati bakoitzaren titulua nahiko adierazgarria dela berez: 1. *Politique de traduction juridique*. 2. *Pratiques et méthodes de la traduction juridique*. 3. *Droit de la traduction juridique*.

Hiru hauek dira esparru egokiak egungo ikuspegia garatzeko, batik bat Europako hegoaldean gai honetan egiten ari denari buruz, eta esan gabe doa, guri ere dagokigun neurrian, euskarari etor dakiokkeenari buruz jarduteko.

Lehen zatiaren barne azpimarratu behar da Rodolpho Saccoren artikulua (*Aperçus historique et philosophique des relations entre droit et traduction*), bertan legelari italiar sonatuak egiten baitu halako ibilbidea, historia eta filosofiaren eskutik, hizkuntza eta zuzenbidea uztartzeko.

Hasieratik planteatzen du hiztegi juridikoaren arazoa,

*La langue du droit est née pour raconter le droit. Plus tard, elle a appris à créer le droit —à créer, d’abord, des liens juridiques; à créer (beaucoup plus tard) des règles de droit—. L’autorité écrit sa volonté, écrit la loi, depuis 5500 ans.*

*Le droit a précédé. La parole qui parle du droit a suivi. La loi est venue la dernière.*

*La langue «juridique», «technique», opposée à la langue commune (littéraire ou vulgaire) est née, avec la science du droit, dans le monde romain. À partir de cette époque, un certain nombre de langues, qui voulaient être langues savantes, se sont données des dictionnaires juridiques (le dernier en date est le dictionnaire basque) (14–15 or.).*

Gero, itzulpen juridikoari buruz dihardu, horren garrantzia azpimarratuz,

*...les problèmes de traduction deviendront certainement le chapitre le plus prometteur de la comparaison juridique, ouvrant des voies d’importance primordiale à l’épistémologie juridique et à la réforme de la langue juridique.*

*À Turin, ISAIDAT, le centre de recherche que je préside, a promu quatre congrès (1998, 2001, 2007, 2008) sur la traduction juridique.*

*En Italie, des facultés offrent à l’étudiant des cours et même des masters en traductologie juridique.*

*La littérature, dans ce domaine, est désormais importante. Les linguistes invitent les juristes à leurs congrès, et leur demandent de présenter des rapports (18. or.).*

Ondorioak, berarentzat, itxaropentsuak dira,

*La plus grande partie de l’immense bagage lexical dont bénéficie le continent européen est traduisible en raison de des origines liées, d’abord, à la traduction du latin au français, du latin à l’allemand, du latin à l’italien, puis à la traduction du français et de l’allemand à l’italien, au russe, au hongrois, à l’espagnol, au polonais, etc. Il serait possible d’établir des arbres généalogiques des termes juridiques, la génération des mots consistant en une traduction-adoption (26. or.).*

Jarraian, Michel Moreauk (*Traduction et traducteurs dans la vie juridique contemporaine*) galdetzen du zein den itzulpen juridikoaren zeregina eta Euskal Herrian guztiz aplikagarria den aipamena egiten du:

*En réaction à cette mondialisation souvent proclamée, parfois subie, il y a toutefois des revendications de diversités notamment culturelles que font justement observer qu'une langue véhiculaire au vocabulaire réduit et appauvri ne se prête pas à une activité intellectuelle approfondie : l'uniformité est-elle le souverain bien ? s'interrogeait Gérard Cornu.*

*Il faut surtout rappeler l'existence d'États plurilingues qui consacrent l'égalité des langues officielles, le développement d'organisations internationales puissantes, universelles ou régionales, dans lesquelles s'impose le multilinguisme.*

*Intéressé par la traduction, Umberto Eco a résumé de façon lapidaire la situation linguistique européenne en affirmant : «La langue de l'Europe, c'est la traduction». On peut voir dans ce propos, le constat de la place importante tenue par la traduction notamment juridique et une résignation devant sa nécessité. En vérité, le propos est porteur d'une vision positive de la traduction considérée comme une négociation entre les cultures, une passerelle irremplaçable pour éviter l'unification réductrice des cultures ; si le multilinguisme et le «multijuridisme» ne sont plus des fatalités mais des opportunités, alors la traduction, nécessaire à la vie commune, s'affirme comme un atout. (45. or.).*

Lehen zati horren barruan, hurrengo gogoeta dator itzulpen juridikoak duen eginkizunari buruz, estatuaren barnean. Hartara, aztertzen dira Kanada (Aileen Doetsch. *La corédaction des lois canadiennes : historique, pratique, apports*) eta Suitza (Eleanor Cashin-Ritaine. *L'expérience de l'Institut suisse de droit comparé*) errealitate nazional desberdinak, lehenean koredakzioa dena, bigarreanean hizkuntza aniztasuna baita, administrazio eta mundu juridikoaren esparruan.

Aurrera joanez, estatuaren ordenamendutik harago doa hurrengo atala, nazioarteko arauak nola interpretatzen diren azaltzeko (Manlio Frigo, *La formulation de la règle juridique et son interprétation dans l'ordre internation-*

al) edota Europako Batasunaren legeria, 23 hizkuntzetan ematen dena, nola moldatzen den agertzeko (Gilbert Lautissier, *La législation de l'Union européenne : une règle unique en vingt-trois langues*).

Lehen zati hori osotzen du halako gogoeta egokiak, azpimarratu duena itzulpenaren jokamoldea zuzenbide konparatuan, beharbada, haren zereginik klasikoena, zuzenbide konparatuan ez ezik, nazioarteko zuzenbidean ere eragina izan duena (Marie Goré. *La traduction, instrument de droit comparé*).

Liburuaren bigarren zatia da, ausaz, interesgarriena aribideko itzul-tzailearentzat. Izatez, hortxe dira azalpenik gogoangarrienak esparru honi dagokionez.

Jean-Louis Sourieux (*Réflexions introductives d'un enseignant-chercheur*), egile ospetsuak eginiko sarreraren ondoan datoz, hurrenez hurren, Isabelle de Lamberterie (*Des pratiques de la traduction*); Jean-Claude Gémard, itzulpen juridikoaren teorikoa, izen handikoa, (*Traduire le droit. Lettre, esprit et équivalence*); Fernando Feldman (*Méthodologie de la traduction juridique*); Marie Cornu (*Terminologie et droit comparé dans le domaine de la culture*); Jacques David (*Terminologie et droit comparé dans le domaine de procédures collectives*); Alain A. Levasseur (*Traduction du droit : le contrat*) eta Isabelle Tranchant (*Les méthodes de traduction et la terminologie juridique : l'expérience du département de langue française de la Commission européenne*).

Horra bilduta zuzenbidearen adar desberdinak, bakoitzak itzulpen juridikoaren aldetik dituen esangura eta zailtasunak barneraturik.

Hirugarren zatian ahalegin zabala egiten dute Anne-Marie Leroyer (*Exposé introductif*), Jean-Pierre Relmy (*Nouvelle perspective d'étude des rapports entre le droit et la traduction*), David Noguéro (*Obligations et responsabilités du traducteur juridique*), Marie-Eugénie Laporte-Legeais (*Traductions juridiques et droits intellectuels*) eta Frédérique Niboyet (*La formation à la traduction juridique et le droit comparé*) idazleek itzultzaile juridikoen formazio prozesua argitzeko eta horien deontologia ere bultzatzeko. Bide

beretik, eranskin gisa ematen da itzultzaileen deontologia kodea, Frantziako itzultzaile profesionalen sindikatu nazionalarena.

Hona ekartzeko modukoa da, horien artean, Relmy-n jarduna (*Nouvelle perspective d'étude des rapports entre le droit et la traduction*), berak hiritan azaltzen duena:

*... le droit à la traduction (I), l'obligation de traduction (II), et l'obligation de traduction conforme (III) (221. or.).*

Lehenaz den bezainbatean, ondorioak honetara datoz, Frantziako kasuan,

*Les langues régionales et minoritaires et les langues étrangères ne bénéficient donc pas d'une protection optimale. Si la langue française est bien mieux protégée, il convient de montrer qu'elle ne l'est pas toujours de manière satisfaisante (234. or.).*

*Au terme de la démonstration, on voit que les personnes comme les langues ne bénéficient pas toujours d'une protection suffisante : l'accès à la traduction est parfois trop réduit pour les justiciables et les contractants ; parallèlement, le recours à la traduction est quelquefois loin de promouvoir efficacement l'emploi de la langue française ou des langues régionales, minoritaires et étrangères. Une meilleure protection des personnes et des langues pourrait alors résulter de la consécration d'un «droit à la traduction» (236. or.).*

Bigarrenaren alorrean ere,

*De nature et de portée différents, l'obligation conditionnée et l'obligation absolue de traduire ne servent pas de manière égale les fins du droit de la traduction. Si la première s'avère propice à la protection des personnes et des langues, elle doit cependant être encadrée en raison de l'abus de droit qu'elle peut favoriser (A). Plus coercitive et protectrice, l'obligation absolue de traduction doit être préférée et développée (B) (243. or.).*

*Au cours de l'analyse, il a été démontré que l'obligation de traduction participait efficacement à la protection des personnes et des langues. Il reste à montrer que cette protection est parachevée —ou presque— par une*

*autre obligation de traduction, complémentaire de la première : l'obligation de traduction conforme (246 or.).*

Hirugarrenean, azkenean,

*Efficace dans son ensemble, la technique de la certification conforme appliquée à la traduction pourrait être améliorée. Bien qu'elle permette d'approcher plus certainement l'identité dans la différence, cette technique demeure incapable de la garantir pleinement. Dès lors, si l'on entend renforcer le lien entre la certification et la fidélité, il importe de privilégier le recours à des interprètes-traducteurs qualifiés. Dans cette quête légitime de fidélité, le rôle de la déontologie ne doit pas être minoré. Ainsi, le Code de déontologie des interprètes-traducteurs, reconnu internationalement, est-il largement loué par les professionnels de la traduction. Il importe de se référer à ces principes déontologiques dès lors qu'ils favorisent l'accès étendu à des traductions fidèles et partant, le droit à une bonne traduction, fin absolue du droit de la traduction (253-254 or.).*

François Terré (*Observations finales*) da azken ondorioak papereratzen dituen,

*Traduction ? Le mot convient-il? Il appartient aux philosophes de répondre. Reste qu'il y a, dans le passage du fait au droit, puis en retour du droit au fait —et l'on peut renverser l'ordre des courants— des passages révélateurs. Il est vain de croire possible à ce sujet un absolu juridique. Il est, en droit comme ailleurs, impossible de satisfaire à l'idéal d'une traduction parfaite. Ainsi le veut le pluralisme linguistique. Il y a, dans la traduction juridique, autre chose que la transmission d'un message verbal. Le droit ne peut se satisfaire d'une affirmation d'un absolu de l'imprévisible, dans la mesure où, parent consanguin de l'interprétation, il est lui-même recherche d'un sens de la vie dans la singulière aventure des hommes (311. or.).*

